

**PRENTSAURREKOA IRUÑEAN, 03-06-20, ZABALDI, elkartasunaren etxean**

**EUSKAL HERRIKO GIZARTE FOROAREN I. TOPAKETAK, EKAINAREN 27-28-29  
GASTEIZEN (Koldo Mitxelena Ikastetxean eta Europa Jauregian)  
MANIFESTAZIORA JOATEKO DEIA, DATORREN 27RAKO 19ETAN GASTEIZEN**

**BESTE EUSKAL HERRIA BEHARREZKOA DA!!!!**

**-Guztiona eta guztiontzat-**

Duela gutxi iragarri genuen bezala, Foro Sozial Mundialen eta Europako Foro Sozialen ostean, horietan zehaztutako ildoi jarraituz, tokian tokiko Foro Sozialen txanda da.: eta gureari dagokionez, Euskal Herriko Gizarte Foroaren txanda da. Ildo horretan, 2002an, eta herri mugimendu ezberdinetako hainbat partaideen ekimenez, Euskal Herriko Foro Soziala sortzeko prozesua abiatu zen. Prozesu horren helburua izan da, Euskal Herrikoa eta Euskal Herrirako sortu nahi zen Foro Sozialaren jarduteko oinarri komunak adostea.

Euskal Herriko Gizarte Foroaren I. Topaketek bertako gizarte eragileon elkar ezagutzarako, elkar eztabaidarako eta elkarren arteko harremanetarako gunea izan nahi dute:

-Euskal Herriko eta munduko kapitalismoaren, globalizazioaren eta neoliberalismoaren aurka.

-Euskal Herrian gizarte justuagoa, parte-hartzaileagoa eta berdina... sortzearen alde.

-Alternatiba osoak bilatzeko gunea, behetik gora eraikia eta indarrak uztartzeko espazio fisikoa.

Euskal Herriko Gizarte Foroa guztiona eta guztiontzako gunea da, espazio fisikoa alegia, non taldeak zein haien arteko harreman sareak diren subjektuak. Harreman horiek zein subjektu horiek indartzeko eta zabaltzeko aukera dugu I. TOPAKETETAN, zuen aukera, gure aukera... GUZTION AUKERA!

**Era berean, eta prentsaurrekoa honetan, dei berezi bat egin nahi diogu herritar orori, ostiral arratsaldeko manifestazioan parte har dezan. Manifestazio koloretsua, arratsaldeko 19etan abiatuko da Europa Jauregitik, Foruen plazan bukatzeko. Bertako leloa izango da: "BESTE EUSKAL HERRI BAT BEHARREZKO DA"**

**I. TOPAKETEN EGITARUA**

**EKAINAREN 27an, ostirala, Gasteizko Europa Jauregian**

**-16etan:** I zena ematea, benetakotze-agiria ematea

**-17etan:** Topaketaren sarrera eta kokapena: *"Neoliberalismoa Munduan eta Euskal Herrian"*:

-Sarrera ekitaldia

-Konferentzia laburra gonbidatuekin:

**-Neoliberalismoaren munduko egoera sozioekonomikoa: Michel Husson, Ekonomilaria eta Ires institutuko ikertzailea.**

**-Neoliberalismoaren egoera soziopolitikoa: Daniel Bensid 68ko militante historikoa, "Contre temps" aldizkariko zuzendaria eta unibertsitateko irakaslea.**

-Euskal Herriko egoera sozioekonomikoa: Yolanda Jubeto, EHUko irakaslea eta ekonomilaria.

-Euskal Herriko egoera soziopolitikoa: Mario Zubiaga, Zientzia politikoetako irakaslea EHU.

-Partaideen txanda irekia

## **-19etan: MANIFESTAZIO KOLORETSUA, GASTEIZKO KALEETAN ZEHAR: "BESTE EUSKAL HERRIA BEHARREZKOA DA"**

-20'15ean: EKITALDI KULTURALA: "*BERTSO BERRIAK FOROARI JARRIAK*": Jon Sarasua, Igor Elortza Unai Iturriaga eta Josu Zabala batbihirulau musika taldeaz lagundurik.

**EKAINAREN 28an, larunbata, Gasteizko Koldo Mitxelena Ikastetxean**

-**9etan:** I zena ematea, benetakotze-agiria ematea

-**9'45ean:** Egunaren aurkezpena

-**10etatik 18'00etara:** GAI ARDATZETAN: tailerrak, eztabaidak, hitzaldiak, mintegiak, e.a.... Besteak beste, honakoak aztergai gune bakoitzean:

\***Sozio-ekonomia:** gizarte eskubideak Euskal Herrian; sektore publikoa eta pribatizazioak; lan harremanak; sindikalismoa; lan osasuna eta gizarte osasuna; etxebizitza; babes sozialak; pentsioak; oinarrizko errenta eta autogestioa...

**Gonbidatuak:** Michel Husson, Nekane Jurado, Isabel Otxoa, ELA, LAB, ESK, CCOO, Osasunaren aldeko erakundea, LSB-USO

\***Eskubide zibilak eta askatasun demokratikoak:** demokrazia parte-hartzailea; adierazpen eta elkartzeko askatasuna Euskal Herrian; borroka molde berriak; drogak...

**Gonbidatuak:** Jose Mari Etxaniz, Periko I barra, Martxelo Otamendi, Jabier Salutregi, abokatuen elkarteak...

\***Inmigrazioa:** hiritartasuna eta naziotasuna, hizkuntzak, hezkuntzak eta identitateak; mugimenduen arteko koordinazioa, elkartegintza...

**Gonbidatuak:** Euskal Herrian bizi diren etorkinak, eta elkarte zein erakunde ezberdinak

\***Autodeterminazioa:** autodeterminazioaren subjektuak; Autodeterminazioa prozesu iraunkor gisa; Autodeterminazioa, nazio-estatuak eta globalizazioa; Autodeterminazioaren aldeko herrien borroka: esperientziak

**Gonbidatuak:** Antxon Mendizabal, Eraikuntza, Ezker Batua, Koldo Gorostiaga, Hautetsien biltzarra, Zutik, Banitz, Askapena

\***Lurraren solasa:** borroka eta erronka ekologiko lokalak eta sektorialak; elikagaien subiranotasuna; nekazarien sektorea...

**Gonbidatuak:** I tzoiz, Zornotza, AHT, EHNE, ekologistak martxan, LEI A, CADE, Hemen eta munduan, Paul Nicholson, Jorge Riechman y Hellen Groone, Iñaki Markiegi.

\***Gazteria:** gazteak eta lan prekarietatea; gazteak eta etxebizitza; gazteak eta eskubide sozialak; gazteak eta komunikazio esparruak; gazteak eta aisialdirako eredu alternatiboak...

**Gonbidatuak:** Gaztesarea, Duina, Ela, Lab, Segi, Gazteriaren Kontseilua,

\***Emakumeak, Feminismoa...**: genero eraikuntza baterantz; gizarte berria eta pertsona askeak ekoizpenaren logikatik at; emakumeen eskubide sozialak; lan banaketa eremu publikoan eta pribatuan...

**Gonbidatuak:** Bilgune Feminista, ELA, LAB, Guraso taldea, ESK...

\***Identitatea, hizkuntza, hezkuntza eta komunikabideak:** hizkuntza eskubideak, berezko hezkuntza sistemarentz; komunikazio eta kontrainformazio tresna berriak, globalizazioa, euskararen zapaltze prozesua eta normalkuntza prozesua; identitatea eta agerpen sektorialak...

**Gonbidatuak:** EB, EA, Aralar, AB, Batasuna, Iparraldeko Berdeak, Jon Sarasua, Joseba Alvarez, EHE, DEMOAK, Behatokia, ESAI T, Orreaga, Hegoa, Zutik, Euskal Hezkuntza ereduak...

\***Antimilitarismoa, nazioarteko egoera eta herrien elkartasuna:** gerra egoerak eta bakearen aldeko mugimenduen bidegurutzeak; Cuba eta gaur egungo egoera; Sahara; GKEak eta erakunde internazionalistak: osagarritasunak edota aurkariak globalizazioaren aurkako mugimenduan?...

**Gonbidatuak:** R.A.S.D., Euskadi-Cuba; Komiite Internazionalistak, Askapena, ONGeen koordinadora, Hirugarren mundua eta pakea, mugarik gabe, KEM-MOC, Gerrarik ez!...

\***Nazioarteko instituzioak eta politika neoliberalak:** Kontsumoaren munduko erakundea; Kanpo zorra; merkataritza zuzena; nazioarteko nekazarien erakundeaz...

**Gonbidatuak:** Michel Husson, Daniel Bensid, Alessandra Marcoceti, RCADE, Patxi Zabalo...

-19'00etan: GAI ARDATZETAKO BATZARRAK

-Ondorio nagusiak gai ardatz bakoitzeko

-Aurrera begirako proposamenak gai ardatz bakoitzeko

-22'30ean: GAUEKO EKI TALDI AK: Indymediaren festa, Hala Bedi Tabernan

**EKAINAREN 29an, igandea, Gasteizko Europa Jauregian**

-10'00etan: **BATZAR OROKORRA**

\*Gai ardatzetako ondorio nagusien eta proposamenen aurkezpena

\*Txanda irekia

\* I. Topaketaren ondorio nagusiak

\*Europako Foroaren bultzatzaileen agurra: Alesandra Marcoceti

-13'30ean: **AMAIERA EKITALDIA, Euskal Herritar baten eskutik (gonbidatu berezia)**

**IZENA EMATEA**

\*Izena emateko epea: ekainaren 9tik 26ra.

-Langileak: 15 euro

-Langabetuak, ikasleak eta gazteak: 5 euro

**-Dirua sartzeko kontu zenbakia:** EUSKADI KO KUTXA,

30350195281951016836

**\*Harremanetarako eta informazio gehiagorako:**

-Telefonoa: 943275561

-E-posta: [joxemi@joxemi.org](mailto:joxemi@joxemi.org)

-Web gunea: [www.ehgf.org](http://www.ehgf.org)

### **III. DEIA ETA GONBITEA**

Orain artean, Euskal Herriko Gizarte Foroan parte hartzen ari garen eragileok deia zabaltzen diegu, bestelako Euskal Herri baten alde, zein bestelako Mundu baten alde diharduten euskal eragile sozial guztiei, lehendabiziko Topaketa honetan parte har dezaten. Era berean, dei berezi bat egin nahi diegu bazterketa soziala pairatzen duten giza kolektibo guztiei, hala nola, etxerik gabekoak, ezindu fisikoak, langabetuak, etorkinak zein arraza eta etnia ezberdinetakoak, torturatuak, emakumeak, gazteak, langileak, ikasleak, amak eta aitak, hirugarren adinekoak, hizkuntza gutxiagotu bateko komunitateei, nekazariei, dendariei, hots, eskubide sozialik gabekoei, eta neoliberalismoaren errepresioa bizitzen duten kolektibo horiei guztiei, haien ahotsa altxa dezaten, eta adieraz dezaten nortzuk diren eta zer nahi duten.

**EUSKAL HERRIKO GIZARTE FOROAREN ANTOLAKETAREN PARTAIDEAK:** ELKARTZEN, ADISKIDETUAK, BANITZ, 8812 EKIMENA, EUSKALKIDETZA, GERNIKA BATZORDEA, BATASUNA, RCADE, ESK, ARANGOITIKO EUSKAL TXOKOA, ATE-JOKA EKIMENA, SEGI, ASKAPENA, HEMEN ETA MUNDUAN, ELA, CCOO, LAB, EHNE, EUSKADIKO GOBERNUZ KANPOKO ELKARTEEN KOORDINAKUNDEA, BATEGINIK, GITE-IPES, KOMITE INTERNAZIONALISTAK, ERAIKUNTZA, BILGUNE FEMINISTA, HERRIEN ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO LIGA, AHTren AURKAKO ASANBLADA, EGUZKI, GAZTE ABERTZALEAK, IKASLE ABERTZALEAK, GARAI PEN(EMAKUME ETORKINEN ELKARTEA), EUSKAL HERRIAN ERREFUXIATUTAKO KOLONBIANOEN KOLEKTIBOA, EHE, ELKARKIDETZA, EZKER BATUA GAZTEAK, EUSKAL HERRIKO KONTSUMITZAILEEN ANTOLAKUNDEA, SEAD(SAHARA LAGUNEN ELKARTEA), GIZA ESKUBIDEEN LANGILEAK, ,BAKEA ETA ELKARTASUNA, HIRUGARREN MUNDUA ETA PAKEA, ELKARRI, EPK, GIZA ESKUBIDEEN BEHATOKIA, EKOLOGISTAK MARTXAN, EUSKADIKO GAZTE KONTSEILUA, KEM-MOC, OSASUN PUBLIKOAREN ALDEKO ELKARTEA, GERNIKA GOGORATUZ, HEGOA, MUGARIK GABE, GERRARIK EZ SAREA, PEDRO ARRUPE GIZA ESKUBIDEEN INSTITUTOA, STEE-EILAS..